

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO
OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA ALDATZEKO
LEGEAREN AURREPROIEKTUA**

**EUSKO JAURLARITZAREN SAILEK ETA BESTE
ADMINISTRAZIO PUBLIKO BATZUEK EGINDAKO
EKARPENAK**

2019KO ABENDUA



AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA	2
2. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOEK LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN ALEGAZIO-FASEAN IZAN DUTEN PARTE-HARTZEA	3
3. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOEK EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA	4
3.1. IZAERA OROKORREKO EKARPENEN EMAITZAK	4
3.2. AURREPROIEKTUAREN ARTIKULUETAN EGINDAKO EKARPENEN EMAITZAK	7

1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea aldatzeko legearen aurreproiektuaren bigarren eta hirugarren zirriborroaren lanketa-prozesuan Eusko Jaurlaritzak eta EAeko beste administrazio publikoek (foru-aldundiak eta udalak) izan duten partaidetzaren emaitzak biltzen dira, eta hauek dira **HELBURUAK**:

1. Proposamenak aurkeztu dituzten EAeko erakunde publiko guztiak ezagutu dezatela Emakunde egin duen balorazioa, eta egiaztatu ahal izan dezatela, hala badagokio, nola txertatu diren proposamen horiek lege-aurreproiektuaren bigarren edo hirugarren zirriborroan.
2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aurreproiektuaren lanketa-prozesuan EAeko erakunde publikoek izan duten partaidetza aitortzea eta haren garrantzia azpimarratzea.
3. Herritarrei eta eragile sozial, ekonomiko eta instituzionalei ezagutzera eman dakiela zer-nolakoa emaitzak eman dituen EAeko erakunde publikoek kontrastearen eta kontsulta publikoaren prozesuan izandako parte-hartzeak.

AURRETIKO GOGOETAK:

- ▶ **Sailen, foru-aldundien eta udalen** ekarpenak aurkezten dira dokumentu honetan. Gizarte zibilaren eskutik ere egin dira ekarpenak (kontsulta publikoaren fasean), eta horiek ere lagungarriak izan dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen aurreproiektuaren bigarren zirriborroa hobetzeko. Azken ekarpen horiek orri hauetan ez jaso arren, aipatzekoa da orotara **400 ekarpen** inguru jaso eta aztertu direla.
- ▶ EAeko erakunde publikoek egin dituzten **proposamenak** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen **aurreproiektuaren lehen zirriborrotik** abiatuta egin dira, eta, horiek aintzat hartuta **bideratu ahal izan da** arauaren bigarren edo hirugarren zirriborroa (Emakunde proposamena zer unetan jaso eta baloratu duen, horren arabera txertatu dira dokumentu batean edo bestean). Hala ere, ez da behin betiko testua izango ez bigarren zirriborroa ez hirugarrena, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea izapidetzeko prozesu propioak aurreikusten baitu jendaurrean eta Eusko Jaurlaritzako koordinazio-organo eta sail guztien iritzipean jartzeaz gain, erakunde eta organo aholku-emailei ematea testua, egin behar dituzten txostenak eta irizpenak biltzeko (informazio hori ez da dokumentu honetan emango).

DOKUMENTUAREN EGITURA:

- ▶ Aurkezpenaz gain, informazioa bi bloketan egituratuta agertzen da. Lehenengo blokean, modu sintetikoan deskribatzen dira sailen, foru-aldundien eta udalen (Eudel barne) partaidetzari dagozkion ezaugarriak, eta, bigarrean, hainbat proposamen biltzen dira, Emakunde-Emakumearen EAeko erakundeak proposamenen inguruan egin duten balorazioa barne hartuta.

2. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOEN LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN ALEGAZIO-FASEAN IZAN DUTEN PARTE-HARTZEA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aurreproiektuaren lehen zirriborroaren testuaren kontraste-fasea 2019ko martxotik uztaileira egin da, EAeko administrazio publikoekin batera. Informazioa igortzeko eta kontsultatzeko, besteak beste, Tramitagune eta LEGESAREA lankidetzarako gunea erabili dira (Eusko Jaurlaritzako operadore juridikoentzat).

Jarraian adierazten den taulan, egindako ekarpenen jatorria zehazten da. Hala ere, komeni da aintzat hartzea arau-testuari buruzko oharrak egin dituzten Eusko Jaurlaritzako sailen, foru-aldundien eta udalen (Eudel barne) kopurua ez datorrela bat egin diren proposamenen kopuruarekin, sail eta foru- edo toki-administrazio bakar batek, oro har, ekarpen bat baino gehiago egiten baitio lege-aurreproiektuaren lehen zirriborroari. Bestalde, komeni da zehaztea taulan alegazio-fasean erantzun duten sail guztiak aipatzen diren arren, guztiak ez dituztela arau-testuari buruzko proposamenak egin. Izan ere, edukiak aztertu eta iritzi-pean jarri ondoren, euren eskumenen eremua kontuan izanik, onespina eman dute (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila eta Kultura eta Hizkuntza Politika Saila).

EAEko erakunde PUBLIKOAK	
EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Lehendakaritza ▶ Gobernantza Publikoa eta Autogobernua ▶ Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak ▶ Enplegua eta Gizarte Politikak ▶ Ingurumena, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza ▶ Ogasuna eta Ekonomia ▶ Hezkuntza ▶ Osasuna ▶ Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa ▶ Kultura eta Hizkuntza Politika ▶ Segurtasuna ▶ Lana eta Justizia
FORU-ALDUNDIAK	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Arabako Foru Aldundia ▶ Bizkaiko Foru Aldundia ▶ Gipuzkoako Foru Aldundia
UDALAK	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Azkoitiko Udala ▶ Bergarako Udala ▶ Gorbeialdeko kuadrilla ▶ EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte

3. EAE-KO ERAKUNDE PUBLIKOEN EGINDAKO EKARPENEN SISTEMATIZAZIOA

Apartatu honetan, EAEko erakunde publikoen egindako ekarpenak aurkezten dira, horien **izaera orokorra** (testu osoari edo **titulu** edo **kapitulu oso** baten **edukiei** eragiten badie) edo **izaera espezifiko** (**artikulu** baten edo gehiagoren testuan eragiten badute) kontuan hartuta. Jasotako ekarpenei dagokienez, honako hau esan beharko litzateke horien aniztasuna eta zehaztapen-maila direla eta:

- ▶ Ekarpena islatzen da, baita lege-aurreproiektuaren bigarren edo hirugarren zirriborroan txertatuta nola geratzen den ere. Dena den, batzuetan ez da hitzez hitz txertatzen dokumentuan, irakurketa errazteko eta arintzeko helburuarekin.
- ▶ Ekarpen guztiak aztertu dira, baina dokumentu honetan ez dira ageri iritzi edo hausnarketa orokorrekin zerikusia dutenak, hots, proposamen zehatz batean zertzen ez direnak. Ez dira aurkezten, ezta ere, arau-testu osoaren edota artikulu batzuen inguruan eragozpenik ez dutela eta proposatutako idazketa mantentzea aipatzen duten ekarpenak.
- ▶ Lege-aurreproiektuaren zirriborroko artikuluen inguruan egindako ekarpenei dagokienez –halakoak izan dira gehienak–, honako hurrenkera honi jarraikiz agertzen da informazioa:
 - Lehena:** proposamena zein kapitulutan eta titulutan inskribatzen den identifikatzen da, eta aldatzea proposatzen den artikulua edo artikulua deskribatzen dira.
 - Bigarrena:** proposamenaren azterketa abiapuntutzat hartuta, artikulua aldatzea egokia den ala ez den adierazten da. Proposamenak artikuluetan zenbait aldaketa eragiten baditu eta horiek balorazio desberdina badute, proposamena «partzialki egokia» dela esaten da.
 - Hirugarrena:** modu sintetikoan deskribatzen da Emakunde-Emakumearen EAEko erakundeak egiten duen proposamenaren balorazioa, arazoitzeko zergatik den egokia edo partzialki egokia, edota zergatik ez den egokia.
 - Laugarrena:** apartatuaren amaieran, taula batean jasotzen dira ekarpenak dituzten arauko kapituluak eta tituluak izenak, ez baitira xehetasunez zehazten ekarpenak artikuluen testuinguruan jartzen direnean.
- ▶ Dokumentu honetan ez dira biltzen terminologia bateratzeari buruzko ekarpenak, ez eta akatsei buruzkoak ere, baina adierazi behar da akats horiek zuzendu egin direla lege-aurreproiektuaren bigarren edo hirugarren zirriborroan.

3.1. IZAERA OROKORREKO EKARPENEN EMAITZAK

- ➔ Arau-testuan erabiltzen den **emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptualizazioak** erreferentziatzen hartzen du nazioartean adostasun gehien lortu duen kontzeptualizazioa. Ez dira definitzen emakumeen aurkako indarkeria motak, xehetasun-maila horrek legea gainditzen baitu; batez ere, kontuan izanda delitu horien erregulazioa Espainiako estatuari dagokiola.
- ➔ Bai legearen zioen azalpenean bai artikulu multzoan, **zainketen** antolamendu soziala sustatzeari buruzko aipamena zabaldu da, bizitza erdigunean jartzen laguntzen duena, etxeko ardurak emakumeen eta gizonen artean era orekatuan banatzea baino ikuspegi zabalago batetik. Gainera, testu osoan, zainketak aipatzen dira etxeko lanei buruz hitz egitean (etxeko lanak eta zainketa-lanak).
- ➔ Uste da Euskadiko erakunde komunek (Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra) ez dutela legegintzako eskumenik zergen eremuan; horregatik, lurralde historikoetan eskumena duten foru-organoei arautu beharko lituzkete **zerga-sistemari** buruzko gaiak; zehazki, emakumeen eta gizonen artean berdintasuna sustatzen duen zerga-eredua, egin diren proposamenen artean adierazten den moduan.

- ➔ Aurreproiektuan proposatu den **finantzaketa-ereduarekin** lotutako proposamenei dagokienez, egokitzen jo da udalerrri txikien dute gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikia barne hartzen duen aipamen bat sartzea. Bereziki, zenbait artikulua aldatu dira (7. artikulua eta 15.3 artikulua), hala, oro har aipatzen da toki-administrazioek arau-testuan aipatzen diren emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko funtzioak modu eraginkorrean gauza ditzaten, «autonomia-erkidegoko administrazioak eta dagozkien foru-administrazioek laguntza emango diete, bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikienei». Dena den, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2018ko abenduaren 12an hartutako konpromisoa agertzen du arau-testuak; alegia, administrazio publikoen aurrekontuen % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzeko konpromisoa bermatzea pixkanaka. Horregatik, ez da egokitzen hartzen 14. artikuluan konpromiso hori aipatzen denean administrazio publikoari eta foru- eta toki-administrazioei buruz esaten dena ezabatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak uste badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla.
- ➔ **Toki-administrazioen autoantolakuntzaren** arloko eskumenari eta lege-aurreproiektuan foruen eta udalen autoantolakuntzaren gaitasunean egin diren «esku-hartzeekin» lotutako proposamenei dagokienez, egindako hausnarketak aintzat hartuta, zenbait aldaketa egin dira arau-testuan. Hurrengo apartatuan, azterketa xehea egin da lege-aurreproiektuaren artikulua bakoitzari buruz, eta hor eman da aldaketa horien berri.
- ➔ Hainbat proposamenetan adierazi da legeak askotan ez duela zehazten **zer EAEko administrazio publikori dagokion jarduketak egitea edo zerbitzuak ematea**. Horrekin lotuta, esan behar da, kasuaren arabera, honako errealitate hauen ondorioz izan daitekeela:
 - ▶ **Zeharkako gai bat** edo gai horizontal bat aipatzen delako eta administrazio publiko guztiei dagokielako aipatzen diren jarduketak egitea eta zerbitzuak ematea. Kasu horietan, lurralde-eremu eskudunak mugatzen du jarduketaren eremu zehatza (esaterako, emakumeen ahalduntzea sustatzeko programak).
 - ▶ Administrazio bakoitzaren **jarduketa-eremu** zehatza, berez, administrazio horrek erreferentziarako arloan (enplegua, hirigintza, gizarte-zerbitzuak, etab.) dituen **eskumener mugatzea**. Hala ere, ildo horretan egiten diren ekarpenak aintzat hartuta, egokitzen jo da 56. artikulua, zerbitzu orokorrak emateari buruzkoa, a) eta b) letretan zehaztea, larrialdi-zerbitzuak eta urruneko informazioa eta arreta emateko gizarte-zerbitzua azaltzen baitira horietan; hala, hor jasotzen denez, zerbitzu bakoitza autonomia-lurralde osorako kudeatuko du herritarren babesaren eta gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren sailak, hurrenez hurren.

Argudio-bide berari jarraikiz eta aurreproiektuan biltzen diren zenbait zerbitzu ematea nori dagokion argiago ezartzeari buruzko proposamenei erantzuna emateko asmoz, 57.1.d) artikulua aldatu da («Arreta espezializatuko zerbitzuak»), Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dauden prebentzio- eta arreta-zerbitzu eta -baliabide motak kontuan hartuta zerbitzu eta baliabide horiek era koordinatuan emateko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima eta biziraule **guztientzat** zerbitzu eta baliabide horiek bermatzeko asmoz. Horrela, hobeto egokituko dira gaur egun indarrean dagoen baliabide motara, eta argituko da helburua dela zerbitzuak administrazio publikoek gizarte-zerbitzuen eremuan dituzten eskumenen arabera ematea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan.
 - ▶ Uste izatea **ez dela egokia zehaztapen hori egitea**. Hala, adibidez, 48.3 artikuluan ezartzen da botere publikoek baimen berdinak eta besterenezinak aplikatzea sustatu behar dutela seme-alaben jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan, eta uste da ez dela beharrezkoa hori zehaztea, printzipio horiek «sustatzeko» hainbat modu egon daitezkeelako, administrazio bakoitzaren eskumenen arabera. Balorazio berdina egin da 45.2 artikuluari buruz; izan ere, proposamen bat egin da, txertatzeko zer administrazio publikok hartu behar dituen alarguntza-pentsioetarako osagarriak ezartzeko eta konpentsazio- eta elikadura-pentsioak ez ordaintzea «ekiditeko» neurriak, eta uste da ez dela beharrezkoa hori adieraztea, hori egiteko hainbat modu egon daitezkeelako, administrazio bakoitzaren eskumenen arabera.

➔ «**Kuadrillen**» erreferentzia gehitu da Euskal Autonomia Erkidegoko udalek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten eskumenak aipatzen direnean, mankomunitateen edo horiek osatzen dituzten bestelako elkarteen bitartez.

3.2. AURREPROIEKTUAREN ARTIKULUETAN EGINDAKO EKARPENEN EMAITZAK

PROPOSAMENA/EKARPENA	EMAITZA	EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EAeko erakundeAREN BALORAZIOA
ATARIKO TITULUA 2.4 art.- APLIKAZIO-EREMUA		
<p>► Legearen aplikazio-eremua handitzea, kontratuen, dirulaguntzen eta hitzarmenen bitartez funts publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuen betebeharrei dagokienez.</p>	EGOKIA DA	<p>► EAek ez dauka eskumenik funts publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuei kontratuaren, laguntzaren edo dirulaguntzaren gaia, denbora edo inplikaturik dauden langileak gainditzeko dituzten betebeharrak jartzeko, baina artikulua aldatu da, zehatzagoa izan dadin. Hala, EAeko botere publikoekin lankidetzaren hitzarmenak edo kontratuak izenpetzen dituzten erakunde pribatuak ez ezik, haien partaidetza duten erakunde pribatuak ere aipatzen dira. Gainera, gehitu da EAeko botere publikoek berdintasun-klausulen bitartez adieraziko dutela nola beteko diren 3. artikuluko eta 16. eta 18.4 artikuluko printzipio orokorrak, berariaz adierazita zer ondorio jazoko diren betetzen ez badira.</p>
ATARIKO TITULUA 3.1 art.- PRINTZIOPIO OROKORRAK. TRATU BERTINA		
<p>► Esaldi hau kentzea c) apartatutik: «...berdintasunaren alde». Orokorregia da.</p>	PARTZIAL KI EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da 3.1.c) artikulua aldatzea, «berdintasuna» terminoa mugatzeko eta «emakumeen eta gizonen tratua» eta «aukeraberdintasunari» buruzkoa dela argitzeko.</p>
ATARIKO TITULUA 3.9 art.- PRINTZIOPIO OROKORRAK. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA		
<p>► Artikuluaren azken tartekia berrikustea, kontuan izanda emakumeek hartzen dituzten erabakiak haien egoeren eta aukeren arabera direla, eta ez dagokiela haien bakarrik eraldatzea sexuagatiko diskriminazioa eta desberdintasunak indartzen eta betikotzen dituzten egiturak eta erakundeak.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da artikulua aldatzea eta idazketa orokorragoa ematea. Horrela, adieraziko da EAeko botere publikoek ezarri behar dituztela emakumeen ahalduntze pertsonalari, kolektiboari, sozialari eta politikoari laguntzeko baldintzak.</p>
ATARIKO TITULUA 3.7 art.- PRINTZIOPIO OROKORRAK. ORDEZKARITZA OREKATUA		
<p>► EAeko sektore publiko instituzionala osatzen duten erakundearen gobernu-organotako eta sozietate publikoetako administrazio-kontseiluak sartzeko arau-testuak pertsona anitzeko administrazio-organotzat egiten dituen salbuespenen artean, uste delako bildutako kasuistika berdina aplika dakiekeela organo horiei.</p>	EZ DA EGOKIA	<p>► Egokitzen da proposatu den moduan aldatzea testua. Hala, termino orokorrago bat erabilita («pertsona anitzeko organoak»), organo guztiei aplikatu ahalko zaie salbuespena.</p>
ATARIKO TITULUA 3.10 art.- PRINTZIOPIO OROKORRAK. PARTE-HARTZEA		

<p>► Berdintasunari buruzko lege bat denez, zehaztea EAEko botere publikoek, politika publikoak garatzean, partaidetza eta elkarrizketa sustatu behar dituztela, bai eta talde feministak eta berdintasunaren aldeko emakume taldeak ere (ez emakume taldeak, oro har).</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>► Egokitza jo da artikulua ez aldatzea. Izan ere, kanpoan geratuko lirateke emakume talde ugari eta askotarikoren ekarpenak, eta talde feministak, emakume taldeak, gizarte-eragileak eta herritarrak oro har aipatuko lirateke.</p>
<p>I. TITULUA I. KAPITULUA 7.1 eta 7.2 art.- TOKI-ADMINISTRAZIOA</p>		
<p>► Zera hartzea kontuan 7.1 artikuluan: adierazten da EAEko botere publikoek mankomunitateak eta taldeak sortzea erraztu eta sustatu behar dutela aurreproiektuan udalerriei esleitutako funtzioak gauzatzeko, baina «esku-hartzea» ekar dezake udalaren autoantolakuntzarako gaitasunean, bereziki, kontuan badaukagu udalerrri batzuk gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikia dutela.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>► Egokitza jo da beste lerrokada bat gehitzea (7.3), EAEko botere publikoek gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikieneko toki-administrazioek mankomunitateak, kuadrillak edo elkartzeak sor ditzaten erraztuko dutela adierazteko, artikulua honen lehenengo apartatuan aipaturiko funtzioak benetan gauzatzeko aldera.</p>
<p>► Artikulua berrikustea, aintzat hartuta foru-aldundien lurralde-eragileak eta tokiko politikak bultzatzearekin eta horien jarraipena egitearekin zerikusi duten funtzioak, toki-administrazioei ematen zaien laguntza ekonomikoan zehazteaz gain, hainbat bideren bitartez ematen zaien laguntza teknikoan zehazten direnak, lurraldearen ikuspegi partekatua eta kohesionatu batetik. Autonomia-erkidegoaren ikuspuntutik, Emakunderi ere badagokio funtzio hori.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>► Egokitza jo da artikulua aldatzea eta era orokorragoan zehaztea autonomia-erkidegoko administrazioak eta foru-administrazioek laguntza emango dietela toki-administrazioei; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikiarekin.</p>
<p>I. TITULUA II. KAPITULUA 10.1 art., 10.2 art., 10.3 art. eta 10.4 art.- FORU-ADMINISTRAZIOAK, TOKI-ADMINISTRAZIOAK ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK</p>		
<p>► Indarkeria matxistaren aurkako politika benetan sustatzeko asmoz, berdintasunerako organoak egoteaz gain, nahitaezkoa izatea organo horien barruan emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko atal espezifiko bat egotea (gutxienez Emakunden, foru-aldundietan eta hiru hiriburuetako udaletan).</p>	<p>PARTZIAL KI EGOKIA DA</p>	<p>► Emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko atal edo zerbitzu espezifiko bat sortzea legez ezartzeak kalte egin diezaietke administrazio publikoen autoantolakuntzarako eskumenei. Dena den, 9. artikulua aldatu da, eta zehaztu da Emakunde-Emakumearen EAEko erakundeak, bere funtzioen artean, honako hauek izango dituela: emakumeen aurkako indarkeria matxistarako politikak planifikatzea, ebaluatzea eta aholkularitza ematea. Horrez gain, 10.1 artikulua ere aldatu da. Ezarri da foru- eta toki-administrazioek, euren autoantolakuntzako eskumenen eremuan, euren egiturak egokitu behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaz –emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko politikak barne– arduratzen den erakunde, organo edo unitate administratibo bat egon dadin euren lurralde-eremuetan.</p>
<p>► Foru- eta toki-administrazioetako berdintasunerako erakunde, organo edo unitate administratiboen funtzioen artean honako hau sartzea: indarkeria matxistaren aurkako politikak diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>► Egokitza jo da proposatu den moduan aldatzea 10.1 artikulua. Horrela, ageriago utziko da zer eskumen duten emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan berdintasunerako erakunde, organo edo unitate administratiboek.</p>

<p>► Foru- eta toki-administrazioetako berdintasunerako erakunde, organo edo unitate administratiboek kontziliazio erantzunkidearen aldeko baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak sortzea eta egokitzea proposatu eta sustatzen dute. Bada, zehaztea funtzio horiek zaugarritasun handieneko emakumeen kolektiboari arreta berezia jarrita eta guraso bakarrek familiei eta indarkeria matxistaren biktimei lehenetsua emanda beteko direla.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>► Azaldutako errealitateak kontuan hartzea dagoeneko legearen printzipio orokorren barruan sartzen da, eta horiek arautu eta bideratu behar dute EAeko botere publikoen jarduketara.</p>
<p>► Zehaztea berdintasunerako erakunde, organo edo unitate administratiboek, aurrekontu-zuzkidura nahikoa izateaz gain, langile kopuru nahikoa ere izango dutela.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>► Testua aldatu da; aurrekontu-zuzkidura nahikoa izateaz gain, aipatutako administrazio-egituren helburuak betetzeko behar den langile kopurua izan beharko dela adierazi da.</p>
<p>► Zehatzago adieraztea berdintasunerako administrazio-egiturek posizio organiko egokia izango dutela, eta ezartzea hierarkia-maila altuenean (lehendakaritzan edo maila baliokide batean) egongo direla. Bestalde, proposatu da kontuan izatea administrazio-egitura horiek «posizio organiko eta funtzio-erlazio egokia» izatea zehazteak «esku-hartzea» ekar dezakeela administrazio publikoen autoantolakuntzarako gaitasunean.</p>	<p>PARTZIAL KI EGOKIA DA</p>	<p>► Administrazio publikoen autoantolakuntzaren arloko eskumenek ez dute aukerarik ematen ekarpena proposatutako moduan biltzeko (hierarkia-maila altuena), baina artikulua aldatu da, eta adierazi da administrazio-egiturek izango duten posizio organikoari esker, modu eraginkorrean hartu ahalko dituztela erabaki politikoak.</p> <p>► Bestalde, uste da posizio organikoari eta funtzio-erlazioari buruzko aipamena egokia izatea hain dela orokorra, non zaila baita biltzen den moduan mugatu ahal izatea administrazio baten autoantolakuntzarako gaitasuna.</p>

▶ Aintzat hartzea Eusko Legebiltzarrak, Arartekoak eta Euskal Herriko Unibertsitateak, langile kopuru nahikoa duten egitura espezializatuak baino, berdintasun-unitateak dituztela.	EZ DA EGOKIA	▶ Aipatzen diren instituzioak ez dira administrazio publikoak, beraz, ez da egokitzen jo «administrazio-unitateak» kontzeptua erabiltzea.
▶ 10.4 artikuluan, egiturak edo pertsonak ez aipatzea, nahasgarriak izan daitezkeelako eta, ondorioz, pertsona batek osatzen dituztenak egituratzat har daitezkeelako. Era berean, gehitzea berdintasun-politikak garatzeko egitura horiek, Eusko Legebiltzarraren, Arartekoaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen kasuan, berdintasunaren arloko espezializazioa izan behar dutela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da artikulua aldatzea. Adieraziko da berdintasun-politikak garatzeko langile kopuru nahikoa duten egitura espezializatuak izango direla.
I. TITULUA I. KAPITULUA 11.1 art., 11.2 art. eta 11.3 art.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO UNITATEAK		
▶ 11.1 eta 11.2 artikulua berrikustea, ikusi delako hiru hiriburu eta udalen egiturak egokitzeko betebeharrak (sail guztietan gutxienez berdintasunerako unitate administratibo bat egon dadin) «esku-hartzea» ekar dezakeela udalen autoantolakuntzarako gaitasunean. Eta, horrez gain, adieraztea erregelamenduz zehaztuko direla administrazio-unitateen gutxieneko eginkizunak.	PARTZIAL KI EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da 11. artikulua edukiak ez aldatzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordeak 2018ko abenduaren 12an hartutako erabakia bete behar delako. EAEko administrazio publikoko hiru mailek parte hartzen dute bertan. Dena den, foru-aldundien eta udalen erreferentziak ezabatu dira, administrazio horiek autoantolakuntzako eskumenetan ez eragiteko.
▶ Zehaztasun-maila handiagoz ezartzea, arau-esparrutik, emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateek bete behar dituzten baldintzak, langileei eman behar dieten berdintasunari buruzko prestakuntza espezializatuari, berdintasuneko lanaren dedikazio eskusiboari eta unitateak sortzeko epe zehatzei dagokienez. Baldintza horiek, aldi berean, dagokien lanpostuen zerrendan bildu beharko lirateke.	EGOKIA DA	▶ Dagoeneko adierazten da 17. artikuluan («EAEko administrazio publikoetako langileen trebakuntza») berdintasuneko langile teknikoan lanpostuak lanpostuen zerrendan egon behar direla, dagokien prestakuntza-eskakizunarekin eta berdintasunerako dedikazio eskusiboarekin. Gainera, 11.2 artikulua aldatu da, eta adierazi da, emakumeen eta gizonen berdintasunerako unitateei dagokienez, erregelamenduz ezarriko direla behar diren langileak eta haien kualifikazioa zehazteko irizpideak. ▶ 11.1 artikuluan, foru- eta toki-administrazioen erreferentzia ezabatu da, euren autoantolakuntzako eskumenak ez urratzeko, eta beste lerrokada bat gehitu da (11.4). Bertan adierazten da administrazio horiei dagokiela, beren eskumenen esparruan, haien erakundeetan berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta arautzea.
▶ Foru-aldundiei eta hiru hiriburu eta udalei atxikitako edota lotutako organismo autonomo eta bestelako erakunde publikoak ere behartzea -25 langile baino gehiago badituzte- administrazio-unitateak izatera, lege honetan eta 15. artikulua 1. lerrokadan aurreikusitako berdintasunerako planean zehaztutako berdintasun-planean jasotzen diren neurrien exekuzioa bultzatzeko eta koordinatzeko.	PARTZIAL KI EGOKIA DA	▶ Lerrokada bat gehitu da (11.4), adierazten duena foru- eta toki-administrazioei dagokiela, beren eskumenen esparruan, haien erakundeetan berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta arautzea.

I. TITULUA II. KAPITULUA 12.4 art.- ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA		
▶ Lege-aurreproiektutik kentzea berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriaren aurkako Udalen Sarearen erreferentzia, udalaren autonomia ez oztopatzeko.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da 12.4 lerrokada kentzea, udalaren autonomia oztopa ez dezan.
I. TITULUA II. KAPITULUA 13.3 art.- SAILARTEKO KOORDINAZIOA		
▶ Zehaztea sailarteko koordinaziorako egiturak edo espazioak berdintasunaren arlokoak bakarrik izango direla.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokiagoa da testua ez aldatzea eta idazketa orokorragoa mantentzea, irekita uzteko beste egitura ez-espezifikoko batzuk egoteko aukera, horietako batzuek posizio estrategiko nabarmena eta eragin handia izan dezaketelako.
I. TITULUA III. KAPITULUA 14.2 art.- XEDAPEN OROKORRA		
▶ Gehiago zehaztea nola kalkulatu behar den foru-aldundietan emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzeko aurrekontuaren % 1eko urteko esleipena (ez dago argi ea kudeaketako aurrekontu propioetik edo aurrekontu kontsolidatutik egin behar den kalkulua) eta zeri egiten dion erreferentzia % 1ak (berdintasunerako politika sustatzea berdintasunerako organoen eta unitateen bitartez, sail eta organismo atxikiek erakundean politika ezartzea, etab.).	EZ DA EGOKIA	▶ Beharbada, % 1aren irizpidea, azalduta dagoen moduan, ez da ongi egokitzen administrazio publiko guztietara, baina irizpide hori adostu da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordean. Administrazio maila bakoitzak bere egoeren arabera zehaztu eta egokitu ahal du irizpide hori (Bizkaiko eta Gipuzkoako berdintasunerako foru-arauek dagoeneko aurreikusita daukate).
▶ Ez zehaztea aurrekontuaren ehuneko zenbat bideratu behar den berdintasun-politikerara, eta adieraztea, pixkanaka, handitu egin behar dela administrazio publikoek politika horietarako duten aurrekontua. Horrela, aurreikusita dagoen % 1a ere gainditu liteke.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da garrantzitsua dela EAeko administrazio publikoek berdintasunaren alde duten konpromisoa agerian jartzea, eta % 1a bat dator Bizkaiko eta Gipuzkoako berdintasunerako arauak gai horren inguruan diotenarekin eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen 2018ko abenduaren 12ko Erabakiarekin.

II. TITULUA I. KAPITULUA 15.1 art., 15.3 art. eta 15.4 art. - EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANAK		
▶ 15.1 artikuluan epe bat jartzea, Eusko Jaurlaritzak botere publikoek berdintasunaren arloan gauzatzen duten jarduera bideratzeko plan orokor bat egin dezan, EAEn egiten diren gainerako planak horren arabera direlako.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da egokiagoa dela epe zehatzik ez ezartzea plan orokorra egiteko; hala, gobernu bakoitzak aukera izango du erabakitzeke zein den egiten duen plan bakoitzaren indarraldia.
▶ 15.2 artikuluan, aukera ematea foru-aldundiei eta udalei haiei atxikita dauden erakunde eta organismo autonomoek euren berdintasun-plana egiten duten ala erakundearen planari atxikitzen diren zehazteko.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da artikulua, idatzita dagoen moduan, nahiko zabala dela eta proposamenean adierazten den aukera ere barne hartzen duela.
▶ 15.3 artikulua berrikustea eta egokitzea, aintzat hartuta foru-aldundien lurralde-ezagutza eta tokiko politikak bultzatzearekin eta horien jarraipena egitearekin zerikusi duten funtzioak, toki-administrazioei berdintasun-planak egiteko ematen zaien laguntza ekonomikoan zehazteaz gain, hainbat bideren bitartez ematen zaien laguntza teknikoan zehazten direnak.	EGOKIA DA	▶ Egokitza jo da artikulua aldatzea eta era orokorragoan adieraztea Eusko Jaurlaritzak eta foru-administrazioek laguntza emango dietela toki-administrazioei; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikiak dituenen.
▶ Kontuan izatea 15.3 artikuluan, adierazten dela udalek berdintasun-planak garatu ahalko dituztela, bai indibidualki bai era mankomunatuan, eta horrek «esku-hartzea» ekar dezakeela udalaren autoantolakuntzarako gaitasunean.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitza jo da jatorrizko idazketa mantentzea, 15.3 artikulua ez baitu betebeharririk ezartzen; planak era mankomunatuan egiteko aukera besterik ez du aurreikusten.
▶ Kontuan izatea 15.4 artikuluan, sektorearen arabera, zaila dela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana egiteko prozesuan elkarrekin feministek eta berdintasunaren eremuko elkarteek parte hartzea. Horregatik, proposatzen da gehitzea sektoreko emakume profesionalen elkarteek parte hartuko dutela.	EGOKIA DA	▶ Testua aldatu, eta 15.4.b) apartatua zehaztu da feminismoaren eremuko eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuko adituek parte hartuko dutela.
▶ Berrikustea 15.4 artikuluan biltzen diren berdintasun-planek gutxienez izan behar dituzten edukien xehetasuna eta Emakundek plan horien inguruan alde aurretik egiten dituen txostenen izaera loteslea, eta agerian jartzea Emakundek aholkularitza tekniko eman dezakeela tokiko planak egiten direnean.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitza jo da 15.4 artikulua proposatu den moduan ez aldatzea, bertan biltzen baitira berdintasun-planek bete behar dituzten kalitate-irizpideak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen esparruan adostu zirenak eta 2018ko abenduaren 12ko Erabakian agertu zirenak. Bestalde, uste da Emakundek plan horiei buruz egin dituen txostenak ez direla lotesleak, eta tresna erabilgarriak direla bai 4/2005 Legean bai Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean ezarritakoarekin bat datorren lurralde-garapen harmoniko bat sustatzeko. Azkenik, aurreproiektuan aurreikusten da Emakundek laguntza emango diela toki-administrazioei planak eta honako lan hau egiteko (urte luzez egin da, dirulaguntzen bitartez).

<p>▶ 15.8 artikuluan aipatzen da EAEko botere publikoek genero-ikuspegia txertatu behar dutela emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremukoak ez diren planetan. Bada, artikulua hori arau-testuaren 22. artikuluan sartzea, plan sektorialak eta/edo estrategikoak aipatzen diren artikuluan, alegia.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen jo da 15.8 artikuluan ezarritakoa 22. artikuluan sartzea eta adieraztea EAEko botere publikoek euren plan sektorialetan eta/edo estrategikoetan genero-ikuspegia txertatu behar dutela, salbu eta txosten arrazoitu bidez justifikatzen bada plan horretan ez dagokiola genero-ikuspegia txertatzea.</p>
<p>II. TITULUA III. KAPITULUA 17.4 art., 17.5 art. eta 17.6 art. - EAEko administrazio publikoetako langileen gaitzuntza</p>		
<p>▶ 17.4 artikulua berrikustea. Izan ere, alde batetik, EAEko administrazio publikoek, lanpostuen zerrendetan, aholkularitza teknikoak eta berdintasun-programak diseinatzeko eta sustatzeko aholkularitza emateko lanpostuak izan behar dituzte; eta, bestetik, langile horien lanpostuak lanbide-sailkapenean A taldeko lanpostutzat hartu behar dira, eta dedikazio esklusibokoak eta lanaldi osokoak izan behar dira, salbuespeneko eta justifikatutako egoeretan izan ezik (lanpostu horiek izan behar dituzten ezaugarriak zehaztean gaitzuntzen da). Eta betebeharrak horiek foru- eta toki-administrazioen autoantolakuntzarako eskumenak oztzatzen dituzte.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Egokitzen jo da artikulua ez aldatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak uste badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla, indarrean dagoen Berdintasunaren Legeak dagoeneko betebeharrak hori ezartzen baitu.</p>
<p>▶ 17.4 artikuluan zehaztea EAEko administrazio publikoetako lanpostu horiek betetzen dituzten langile teknikoek ezagutza espezifikoak, langileek berdintasunaren arloko aholkularitza teknikoak eman eta programak diseinatu eta sustatu behar badituzte, berariaz aipatu behar direla dagokien lanpostuen zerrendan. Horrez gain, zehaztea langile horiek osatuko dituztela bai berdintasunerako organoak bai EAEko administrazio publikoetako berdintasunerako unitateak.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen jo da 17.4 artikulua aldatzea. Horrela, batetik, argiago utziko da langile horiek berdintasun-egituretakoak direla (berdintasunerako erakundeak, unitateak eta organoak), eta, bestetik, testuan adierazitakoa lanpostuen zerrenda ez daukaten administrazio publikoetara egokituko da («EAEko administrazio publikoek euren lanpostuen zerrendetan edo antolakuntza-tresna baliokideetan izan behar dituzte...»).</p>
<p>▶ Gehiago zehaztea 17.4 artikulua, berdintasunaren arloko langile teknikoek eskatzen zaien trebakuntzari dagokionez.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen jo da 17.4 artikulua aldatzea eta gehitzea berdintasunaren arloko prestakuntza eta ezagutza espezifikoak eskatuko direla berdintasun-egituretan aholkularitza teknikoak eman eta programak diseinatu eta sustatu behar diren lanpostuak lortzeko. Halaber, zehaztuko da berdintasunean espezializatutako graduako eta graduondoko unibertsitate-titulua izatea eta feminismoari edo generoari buruzko ikasketak izatea baloratuko dela.</p>
<p>▶ 17.6 artikulua argitzea, honako hau gehituta: enplegu publikora sartzeko hautapen-prozesuetan eta baita lanpostuak betetzeko prozesuetan ere, EAEko administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioari eta horrek administrazio-jardueran duen aplikazioari buruzko edukiak sartuko dituzte.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea 17.6 artikulua testua.</p>

III. TITULUA IV. KAPITULUA 18.2. eta 18.4. art.- XEDAPEN OROKORRAK		
▶ 18.2 artikulua idazketa berrikustea, nahasmendurik sor ez dezan, eta adieraztea foru- eta toki-organoei, euren autoantolakuntzarako eskumenen eremuan, berdintasunaren arloko arau propioak egin ahalko dituztela araudian eta administrazio-jardueran, lege honetan eta bere garapen-arauetan bildutako agindu orokorrak udalen eta lurralde historikoen egoeren arabera zehaztuta eta egokituta.	EGOKIA DA	▶ Egokitzea jo da proposatu den moduan aldatzea aipatutako lerrokadaren idazketa.
▶ 18.2 artikuluan ez galtzea ez organismo autonomoen ez administrazioen mende dauden ente publikoen erreferentzia, kontuan hartuta zuzenbide pribatuko ente publikoek dirulaguntzak eman ditzaketela. Horretarako, araudi edo erregelamendu ofizialen bat prestatzen dute.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da artikuluan emakumeen eta gizonen berdintasuna espezifikoki lantzen duten foru- eta toki-arauak aipatzen direla; beraz, ez dira aipatzen eremu sektorialetan ematen diren dirulaguntzak.
▶ 18.4 artikuluan argi eta garbi adieraztea EAEko botere publikoek hizkera ez-sexista erabiliko dutela sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan, bai eta irudietan ere.	EGOKIA DA	▶ Proposatutako moduan aldatu da artikulua, hizkera eta irudi mota guztiak inklusiboak eta ez-sexistak izango direla aipatuta.
II. TITULUA IV. KAPITULUA 19. art.- GENEROAREN ARABERAKO INPAKTUA AURRETIAZ EBALUATZEA, BERDINTASUN-EZAK EZABATZEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO		
▶ Apartatu bat txertatzea, zera dioena: administrazio publikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, araudia garatzen duten eta generoaren eraginari buruzko ebaluazioak egiten dituzten pertsonen prestakuntza espezifikoa jaso dezaten.	EGOKIA DA	▶ 17. artikulua dio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza oinarritzkoa, progresiboa eta iraunkorra eman behar dietela langile guztiei, baina 17.2 aldatu da, eta ezarri da EAEko botere publikoek lanpostu mota guztietan antzemango dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan behar diren ezagutzak eta prestakuntza, eta, horretarako, dagozkien prestakuntza-planak egin eta gauzatu beharko dituzte.
II. TITULUA IV. KAPITULUA 20.1 art.- - HAUTAKETA-PROZESUAK ETA EPAIMAHAIAK		
▶ Zera txertatzea 20.1.a) apartatuan: administrazio publikoaren barruan funtzio publikoaren arloan eskumena duten organoek estatistika egokiak eta eguneratuak izan behar dituzte, eta sexuaren arabera berezita egon behar dira.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzea jo da artikulua proposatu den moduan ez aldatzea, 16.2 artikulua zehazten baitu EAEko botere publikoek, datuak biltzen dituztenean, nahitaez eta sistematikoki txertatu behar dela sexuaren aldagaia.
II. TITULUA IV. KAPITULUA 21.1-21.12 art.- KONTRATAZIO PUBLIKOA ETA DIRULAGUNTZAK		
▶ Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kasuetara mugatzea lege-aurreproiektuak berdintasunaren arloan aurreikusten dituen kontratazio-debekuak.	EGOKIA DA	▶ Egokitzea jo da Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako kasuetara mugatzea kontratazio-debekuak, eta 21.3 artikulua aldatzea honako hau zehaztuta: EAEko botere publikoek kontratazio-prozeduratik kanpo utziko dituzte Estatuko oinarritzko legerian kontratatzeke debekua ezarrita duten pertsona fisikoak eta juridikoak; horien artean, berdintasun-plan bat izateko betebeharra ez betetzeagatik eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzearen arloko delitu edo zehapen irmoengatik jarritakoak.

<p>▶ Argitzea zer esan nahi duen kontratu bat ez dela egokia generoari dagokionez, eta definizioa egokitzea, bereziki, kontrataziora, dirulaguntzetara eta plangintzara.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da Legearen 21.1 artikuluan zehaztea zer esan nahi duen generoari dagokionez egokia ez izatea, adierazita kontratu bat ez dela egokia, generoari dagokionez, kontratu-prestazioak kalterik egiten ez dienean ez emakumei ez gizeoi.</p>
<p>▶ 21.5 artikuluan aipatzen denean kontratazio-organoek gutxienez emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako exekuzio-baldintza berezi bat txertatuko dutela, zehaztea baldintza berezi hori hizkera eta irudi ez-sexistak erabiltzeari buruzko baldintzaz harago doala.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da proposatutako moduan aldatzea 21.5.b) artikulua.</p>
<p>▶ Foru-organoak 21.5 artikuluko a) eta b) apartatueta ezarrita dagoen betebeharretik kanpo uztea. Artikulu horren arabera, kontratazio-organoek kontratazio-pleguetan txertatuko dituzte emakumeen eta gizonen berdintasunerako adjudikazio-irizpideak, baremoaren gutzitzkoaren % 5eko haztapenarekin, gutxienez, eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako exekuzio-baldintza berezi bat, gutxienez, azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.1 artikuluan (Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoa) aurreikusitako foru-organoen autoantolakuntzarako eskumenak urratzeagatik.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da artikulua ez aldatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazten badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla.</p>
<p>▶ 21.7.b) artikulua idazkera berrikustea, nahasgarria izan daitekeelako (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen -SPKL- 202. artikulua arabera, kontratazio-organoak kontratuaren funtsezko betebeharra esleitzen badio exekuzio-baldintza bereziari, betebeharra betetzen ez bada, kontratua suntsituko da, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badira), eta kontuan hartzea kontratazio-organoei betebeharrak ezartzen bazaie - SPKLren arabera, haien eskubide izan beharko litzateke-, esku-hartzea ekar lezake gaitasunean, foru-aldundien autoantolakuntzarako gaitasunari kalte egiten diolako.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da artikulua ez aldatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazten badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla.</p>
<p>▶ Pleguetan ezarritako emakumeen eta gizonen berdintasunerako klausulak benetan betetzen direla egiaztatzeari dagokionez, zera txertatzea: kontratua gauzateaz eta jarraipena egiteaz arduratzen den unitateak aholkularitza eskatu ahal izango dio bai dagokion administrazioaren berdintasunaren alorreko eskumenak dituen organo edo organismoari baita dagokion saileko berdintasun-unitateari ere.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea 21.7.c) artikulua; hau da, zera gehitu da: aholkularitza eskatu ahal izango zaio dagokion administrazioaren emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko eskumenak dituen organo edo organismoari.</p>
<p>▶ Kontuan izatea, 8. lerrokadatik 12. lerrokadara bitarteko idazketari dagokionez, EAEko Dirulaguntzei buruzko Legearen aurreproiektua izapidetzen ari dela eta, berdintasunari dagokionez, bi arau-proiektuek bat egin behar dutela.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokiagoa da 21. artikuluko 8. lerrokadatik 12. lerrokadara bitarteko idazketa mantentzea, EAEko Dirulaguntzei buruzko Legearen aurreproiektuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaia nola landuko den jakin arte.</p>
<p>▶ Dirulaguntza publikoak ematerakoan, foru-organoek zehaztu dezatela gutxienez zer balorazio eman behar zaien, 21.5.b) apartatuan, berdintasunarekin lotutako gaiei, baremoaren gutzitzkoari dagokionez, foru-organoen autoantolakuntzarako eskumenak urratzen dituelako.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da artikulua ez aldatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak adierazten badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla.</p>

II. TITULUA IV. KAPITULUA 22.1 art. - PLAN SEKTORIALAK ETA/EDO ESTRATEGIKOAK		
▶ Salbuespen zehatz bat txertatzea 22.1 artikuluan: arau orokorren izaera juridikoa duten planek generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egin behar izatea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da proposatu den moduan txertatzea ekarpena 19.7 artikuluan.
III. TITULUA I. KAPITULUA 24. art. - ELKARTEAK ETA ERAKUNDEAK		
▶ Protagonismo handiagoa ematea elkarte eta talde feministei, berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin eta talde feministekin lan egiteko beharra sendotuta, proiektuei eta egiturei ematen zaien laguntza ekonomikoaren bitartez, baita udal mailako ekipamenduak sustatuta ere; besteak beste, emakumeen etxeak. Gainera, protagonismo hori indartzeko, proposatzen da foru mailako gizarte-zerbitzuak eta oinarrizkoak ematen duten arreta eta emakume elkarteek ahalbidetzen dituzten kontzientziazio feministako prozesuak lotzea, eta lan hori egin ahal izateko baliabideak ematea.	EGOKIA DA	▶ 24.3 artikulua dagoeneko aurreikusita dauka berdintasunetik eta berdintasunaren alde lan egiten duten elkartei babes ematea. Hala ere, artikulua aldatu da, eta adierazi da EAEko administrazio publikoek lege honetan aurreikusitako xedeak lortzeko jarduerak egiten dituzten elkartei eta erakundeei laguntza emango dietela, eta entitate horiekin (adibidez, emakumeen etxeekin) lankidetzan aritzeko bide publiko-pribatuak bultzatuko dituztela, emakumeak ahalbidetzen laguntzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimizei eta bizirauleei lagun egiteko guneak errazteko.
III. TITULUA II. KAPITULUA 26.3 art. - GIZARTE-KOMUNIKABIDEAK ETA PUBLIZITATEA		
▶ Gizarte-komunikabideek, euren programazioak egiteaz gain, edukietan eta irudietan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatuko dute.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea testua.
III. TITULUA III. KAPITULUA 29.1. art. eta 29.2. art. - CURRICULUMA		
▶ Zera aldatzea 29.1 artikuluan: hezkuntza-administrazioek «beharrezkoak diren baliabideen» bitartez sustatuko dutela jarri ordez, «esleitzen diren neurrien eta baliabideen» bitartez sustatuko dutela jartzea. Izan ere, edozein jarduketa gauzatzeko, aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egon behar da, eta oraingo idazketan ikus daiteke aipatutako baliabideak mugagabeak izan behar direla.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzen da jatorrizko testuaren idazketa mantentzea, argi geratzen delako, oro har, administrazioak neurriak abian jartzeko, aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa egon behar dela.
▶ Gehiago zehaztea 29.1.d) apartatuaren idazketa, honako hau adierazita: aukera akademikoan hautua generoan oinarritutako baldintzapezetatik libre egitea, halako moldez non emakumeen presentzia txikiak gaituzten dadin lanbide-heziketako zenbait sektore estrategikotan. Izan ere, horrela, hobeto egokitzen da lanbide-heziketan dauden emakumeen presentziaren errealitateari.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da jo da proposatu diren terminoetan zehaztasunak txertatzea.
▶ 29.1.e) apartatua aldatzea eta gehitzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioa, hezkidetzako proiektuen helburuetako bat, genero-sozializazio binarioa zabalduz jarrita egingo dela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.

<p>▶ 29.2 artikulua idazketa berrikustea, uste delako lanbide-heziketaren eremuan berdintasunarekin lotutako irakasgai eta eduki jakin batzuk nahitaez ezarri behar izanez gero, zailtasunak sor daitezkeela. Errege Dekretuek zehazten dituztenez moduluak/irakasgaiak, heziketa-zikloetan ezin da modulurik gehitu, ezta kendu ere. Edukiak alda daitezke bakarrik, eta ematen den modulu zehatzari egin behar diote erreferentzia.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Idazketaren arabera, «irakasgaiak eta/edo edukiak» ezarriko dira, beraz, moduluak edo irakasgaiak ezarri ezin direnean, aukera dago edukiak bakarrik aldatzeko, lanbide-heziketaren kasuan gertatuko litzatekeen moduan.</p>
<p>▶ Hezkuntzak kontzilioari eta erantzunkidetasunari dagokienez betetzen duen roleri erreferentzia egiten dion artikulua bat gehitzea, eta 29.2 artikuluan gehitzea sentsibilizazio-mekanismoak ezarriko direla, gurasoek ikastetxeen hezkuntza-bizitzan eta elkarte-bizitzan parte har dezaten.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Laugarren apartatua egin da 29. artikuluan, eta ezartzen du hezkuntza-administrazioak zainduko duela ordutegiak eta egutegiak ahalik eta gehien errazten dutela ikasleen gurasoen lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea. Halaber, gurasoek seme-alaben zaintzan duten erantzunkidetasuna sustatuko du, bai eta ikastetxeetako hezkuntza-eta elkarte-bizitzan duten parte-hartzea ere.</p>
<p>▶ 29.2 apartatuan txertatzea hezkuntza-administrazioak, hezkuntza-maila guztietan indarkeria-jokabideen prebentzioa oinarritzeko printzipio gisa ezartzeaz gain, jarrera matxistak prebenituko dituela, zalantzan jarrita egitura matxistak eta genero-sozializazio bitarra, gizonen emakumeen gainean duten botere-harremanetan oinarrituta.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da proposatu den moduan aldatzea artikulua.</p>
<p>III. TITULUA III. KAPITULUA 31.1 art., 31.2 art. eta 31.4 art. - PERTSONAK ETA EGITURAK</p>		
<p>▶ 31.1 artikuluan jartzea hezkuntzaren arloa ebaluatu, ikertu, berritu eta ikuskatzeaz arduratzen diren organoek, bai eta irakasleei laguntzeko zerbitzuek ere, hezkidetzako prestakuntza espezializatua duten langileak izango dituztela, uste delako prestakuntza espezifikokoak ez duela bermatzen aipatutako arloan espezializatua eta trebea izatea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da artikulua aldatzea, hezkidetzako prestakuntza espezializatuari erreferentzia egiteko.</p>
<p>▶ Aintzat hartzea, 31.1 artikuluan, ebaluazioaz eta ikerketaz arduratzen diren organo guztiek ez dutela zertan hezkidetzako trebakuntza izan, kasu bakoitzean hartzen den eremuaren arabera izango baita (adibidez, arlo oso tekniko batean ikerketa oso zehatz bat egiten bada, ez da beharrezkoa horrelako pertsona bat egotea).</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da 31.1 artikuluan ezarritako betebeharrak zehaztea eta adieraztea betebeharrak ez diela organo guztiei eragingo, aipatutako gaiez arduratzen diren organoetara baizik.</p>
<p>▶ 31.2 artikulua idazketa aldatzea, kontuan hartuta irakasleek, curriculum ematea alde batera utzita, mugak dituztela zenbait jardura egiteko. Hori dela eta, ordutegi zabalagoa izatea artikuluan azaltzen diren zereginak gauzatzeko, nahasgarria izan liteke, eta kostu handia izango litzateke ikastetxeentzat (ikasleek ordu gehiago bete beharko lituzkete, edota beste zeregin batzuetarako ordu gutxiago erabili).</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da artikulua aldatzea eta adieraztea hezkuntza-administrazioak ikastetxe guztietan bermatuko duela ikastetxeetan hezkidetzako irakasle arduradunak izendatuko direla, eta irakasle horiei asteko ordutegian dagozkien orduak esleituko zaizkiela hezkidetzaren arloko lanerako eta prestakuntzarako.</p>

▶ 31.2 artikuluan, «prestakuntza egokia» adierazpena aldatzea, ez baita zehazten zertan datzan.	EZ DA EGOKIA	▶ «Prestakuntza egokiak» nolakoa izan behar duen zehaztea gai oso konkretua da lege-lerruneko arau batentzat.
III. TITULUA III. KAPITULUA 32.1-32.4 art. PRESTAKUNTZA		
▶ Hezkidetzako prestakuntzari erreferentzia egitean, argi eta garbi adieraztea beharrezkoa dela irakasleak prestatzea, gai izan daitezen indarkeria matxista mota guztiak -bereziki, neskatoek eta nerabeek jasaten dituztenak- identifikatzeko eta horiei modu egokian aurre egiteko, 31.4 apartatuarekin bat etorritz.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da 32.1 artikulua aldatzea eta adieraztea hezkuntza-administrazioak hezkidetzari buruzko prestakuntza-planak jarriko dituela abian, hezkuntzako profesionalentzat. Plan horiek unibertsitateaz kanpoko ikastetxe guztiak hartuko dituzte, eta emakumeen, neskatoen eta nerabeen aurkako indarkeria matxista mota guztiak identifikatzen eta horiei modu egokian aurre egiten laguntzen duten edukiak jasoko dituzte.
III. TITULUA III. KAPITULUA 2. ATALA.- UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZA		
▶ Euskal Herriko Unibertsitateko berdintasun-egiturak (10.4 artikuluan aipatzen da) izan beharko litzuzkeen eginkizunak eta atxikipena biltzea, atalean xedatutakoa betetze aldera.	EZ DA EGOKIA	▶ Euskal Herriko Unibertsitateak autonomia dauka bere zerbitzuen atxikipenak eta eginkizunak arautzeko.
III. TITULUA III. KAPITULUA 33. art., 33.3 art. eta 33.4 art. - XEDAPEN OROKORRAK		
▶ Apartatu bat gehitzea, indarkeria matxistaren biktime diren emakumeei eta neskatoei arreta ematearekin lotutako ikasketetan berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko edukiak txertatzeko beharrari buruzkoa. Horrez gain, zehaztea berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko ikerketak egin behar direla, espezialitate horietan ematen diren edukietan sakontzeko erabil daitezten.	EGOKIA DA	▶ Nahiz eta unibertsitateek autonomia daukaten euren ikasketak arautzeko, egokitzen jo da 33.3 eta 33.4 artikuluek aldatzea, honela: ▶ Autonomia-erkidegoko administrazioak sustatuko du euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateek berdintasunari eta emakumeen eta neskatoen aurkako indarkeria matxista desagerrarazteari buruzko eduki espezifikoak txertatzea biktimei arreta ematen dieten profesionalekin zerkusia duten ikasketetan. ▶ Hezkuntza-administrazioak, prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko deialdietan, bereziki baloratuko ditu prebentzioarekin eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek artatzearekin lotutako gaiak lantzen dituzten proiektuak, arreta hori hobetzen eta eremu horretako profesionalak prestatzen laguntzeko.
▶ 33.3 artikuluan zehaztea aipatzen dituen euskal unibertsitateak Euskal Unibertsitate Sistemakoak direla, eta kontuan izatea, beharbada, ez dagoela ikasle nahikoa emakumeen eta gizonen berdintasun-eragile izateko prestakuntza egiteko. Beraz, proposatzen da prestakuntza «modu egonkorrean» emango dela dion adierazpena kentzea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da lerrokada aldatzea; hau da, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateak aipatuko dira, eta emakumeen eta gizonen berdintasun-eragile izateko prestakuntza espezializatua «egonkorra» izango dela dion adierazpena kenduko da.
▶ 34.4.b) artikulua idazketa berrikustea, prestakuntzari eta ikerketari laguntzeko deialdietan kontuan izan daitezkeen gizonak baino emakume askoz gehiago dituzten ikerketa-taldeak (aurreproiektuan, modu berezian baloratzen dira emakumeen eta gizonen arteko ordezkariak	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatutako lerrokada aldatzea, zehaztuta modu berezian baloratuko direla ikertzaileen % 40 gutxienez emakumeak diren ikertaldeak.

orekatua duten proiektuak).

III. TITULUA IV. KAPITULUA 35. art.- ERANTZUNKIDETASUNA

▶ Zaintzen inguruko erantzunkidetasunari buruzko ikuspegi orokorragoa txertatzea, eta azpimarratzea honako hauen artean partekatu behar dutela zaintzen erantzukizuna: botere publikoak (erregulazio egokiak sortu behar dituzte, zaintzak baldintza berdinetan egin ahal izateko neurriak ezarri eta zaintza-zerbitzu publiko unibertsalak abiarazi), eragile ekonomikoak eta enpresarialak (zaintza-erantzukizunei heltzeko lan-espazioak sustatu behar dituzte) eta etxeak (gizonak etxeko lanek eta zaintzek arduratu behar dira, baita ere, beraiekin bizi diren emakumeek garapen pertsonalerako, sozialerako eta profesionalerako aukera berberak izan ditzaten).

EGOKIA DA

- ▶ Zaintzen erantzunkidetasun sozialarekin lotutako gaiak, zaintza-zerbitzu publikoei eta enpresei dagokienez, Legearen II. tituluko VII. kapituluaren daude bilduta.
- ▶ Egokitzat jo da hainbat aldaketa txertatzea testuan, zaintzen zentraltasunari dagokionez ikuspegi globalago bat izan dezan eta erantzunkidetasun sozialaren beharra barne har dezan (modu sintetikoan deskribatzen dira aldaketak):
 - EAeko botere publikoen aurrekontuak eta politikak diseinatzeko orduan, etxeko lanek eta ordaindu gabeko zaintzek eta horien funtzioak eredu sozial eta ekonomiko batera iristeko duten balioa kontuan izatea, bizitzaren jasangarritasuna erdigunean jarrita (34.2 artikulua).
 - EAeko botere publikoek etxeko lanek eta ordaindu gabeko zaintzen erantzunkidetasun soziala sustatu behar dutela azpimarratzen eta sakontzen da (35. artikulua): zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa, enplegu-egituren egokitzapena eta kultura eta jardun enpresarialaren eraldaketa, gizonen etxeko lanekin eta zaintzekin duten erantzunkidetasuna sustatzea eta zaintzen etika eta praktika orokortzea, norberaren nahiz beste pertsonen garapenerako eta ongizaterako bitarteko gisa, eta abar.
 - «Kontziliazio erantzunkidea» terminoa txertatu da III. tituluko VI. kapituluaren izenburuan eta 47. artikuluan. Horrez gain, 48. artikuluko izenburuak eta eduki batzuk aldatu dira: «Enpleguaren egiturak egokitzea eta kultura eta praktika enpresariala eraldatzea»; eta honako hau, 49. artikuluan: «Zaintzen hornidura unibertsala eta publikoa».

III. TITULUA IV. KAPITULUA 38. art.- ENPLEGUA LORTZEA ETA LAN-BALDINTZAK

<p>► Zainketen sektorea eta, oro har, sektore feminizatuenak «berregituratzeko» neurriak txertatzea kalitatezko eta ondo ordaindutako enpleguen sektoreetan.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da 38. artikulua aldatzea eta epigrafe berri bat gehitzea. Zera dio: EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, lan-baldintzen hobekuntza sustatuko dute zaintza-zerbitzuak eskaintzen dituzten sektore profesionaletan.</p>
<p>► Artikulua aldatzea, honako hau aipatzeko: arloan eskumena duten EAEko administrazio publikoek enpresak sentsibilizatuko dituzte, indarkeria matxistaren biktimei buruzko estereotipoak eta sinesmen faltsuak hautsi ditzaten, eta, horrez gain, biktime horiek kontratatzeke erraztasunak emango dizkiete.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da VIII. kapituluko («Emakumeen aurkako indarkeria matxista») 59.3 artikulua («Etxebizitza, gizarteratzea eta laneratzea eta hezkuntza») aldatzea. Horrela, gehituko da administrazio publikoek enpleguaren eremuan emakume horiekiko egon daitezkeen sinesmen faltsuak edo ikuskera estereotipatuak baliogabetu behar dituztela.</p>
<p>III. TITULUA IV. KAPITULUA 40.1 art. eta 40.2 art.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERTINTASUNERAKO PLANAK ETA POLITIKAK</p>		
<p>► Foru-aldundiei 40.1 eta 40.2 artikuluetan bildutako betebeharrak kanpo uztea. Bertan adierazten da haien kapitalaren gehiengoa EAEko erakunde publikoena den partaidetzako partzuergoek, fundazioek eta enpresek planak egingo dituztela, eta neurri zehatz eta eraginkorrak ezarriko dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko xedearekin. Horrez gain, erakunde barruan berdintasun-politikak garatzeko ardura izango duen zerbitzu bat izango dute, langile espezializatuekin, betiere, 25 langile baino gehiago badituzte, administrazio publiko horiek autoantolakuntzaren arloan dituzten eskumenak urratzeagatik.</p>	EZ DA EGOKIA	<p>► Egokitzen da artikulua ez aldatzea, salbu eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak uste badu beste administrazio batzuen eskumenak urratzen direla.</p>
<p>III. TITULUA IV. KAPITULUA 43. art.- LAN-OSASUNA</p>		
<p>► «Sexuan oinarritutako jazarpena» eta «sexu-jazarpena» terminoak kendu eta «jazarpen sexista» jartzea, hobeto egokitzen delako emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eremuan erabiltzen den terminologiara.</p>	EZ DA EGOKIA	<p>► «Sexuan oinarritutako jazarpena» terminoa hautatu da, Estatuaren legerian biltzen delako eta Estatuak daukalako legegintzako eskumena lan-eremuan.</p>
<p>III. TITULUA V. KAPITULUA 44.2 art.- OSASUNA</p>		
<p>► Ikerketa baliatzea emakumeen aurkako indarkeria matxista mota guztiek osasunean, oro har, eta osasun mentalean, bereziki, duten eragina ulertzeko.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da 50.2 artikulua aldatzea, adierazteko emakumeen aurkako indarkeria matxista lehen mailako osasun publikoko arazoa dela; baita 51.1 artikulua ere, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eragina aipatzeko, eremu horretan ikerketa sustatzeko beharri erreferentzia egiten zaionean.</p>
<p>► Osasun-sisteman inplikaturik dauden profesionalak, erabiltzaileak eta gizarte-eragileak osasunaren eremuan emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunen inguruko trebakuntza izatea.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da proposatu den moduan aldatzea artikulua, eta adieraztea beharrezkoa dela osasun-sistemako profesionalak trebatzea.</p>

Iruzkindua [NE1]: "Acoso sexista" terminoa errepikatuta dago. Pentsatzen dut "acoso sexual" dela termino zuzena: https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_marco/es_ley_igua/adjuntos/segundo_borrador_anteproyecto.pdf (Artículo 43.- Salud laboral)

III. TITULUA V. KAPITULUA 46.1, 46.2 eta 46.3 art. - INGURUMENA, LURRALDE-ANTOLAMENDUA, HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA, GARRAIOA ETA LANDA-EREMUA		
<p>► Garapen- eta zehaztasun-maila handiagoa ingurumen, lurralde-antolamendu, hirigintza, garraio eta etxebizitzaren eremuko politiketan, arauetan, planetan eta programetan (46.1 art.) genero-ikuspegia txertatzeari dagokionez, bai eta zaurgarritasun-egoeretan dauden emakumei etxebizitzak esleitzeko lehentasuna emateari dagokionez ere (46.2 art.).</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da 46.1 eta 46.2 artikuluen garapen- eta zehaztasun-mailan sakontzea. Horretarako, 46.1 artikuluan zenbait kontsiderazio ezarri dira arautzen den eremuko politiketan, arauetan, planetan eta programetan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko; hona hemen, labor-labor: emakumeek eta gizonen mugikortasunari eta espazioak, azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokienez dituzten beharren ezagutza sustatzea; espazio seguruak indartzea; sozialki kohesionatuta dauden lurraldeak eta espazioak sustatzea, eta etxeko lanak eta zainketak egitera bultzatzea, bizitzaren iraunkortasuna errazte aldera. Horrez gain, EAEko botere publikoek 46.2 artikuluan zehazten diren ingurumenaren arloko neurrietako batzuk hedatu beharko dituzte, berdintasunari laguntzeko.</p>
<p>► 46.1 artikuluan zehaztea EAEko botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituztela artikulua aipatzen duen arloko politika eta programetan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko, kontuan hartuta emakumeen segurtasunaren inguruko zenbait gai (ez pertsonen segurtasunaren ingurukoak).</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da proposatutako moduan aldatzea 46. artikulua.</p>
<p>► 46.1 artikuluan, EAEko botere publikoek beharrezkoak diren neurriak hartzen dituztenean artikulua aipatzen duen arloko politika eta programetan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzeko, etxeko lanen eta zainketen erreferentzia, norberaren bizitza, lana eta familia bateragarri egitearen erreferentzia eta profesionalak berdintasunean trebatzearen erreferentzia kentzea, EAEko botere publikoek modu berezian landu behar dituzten gaiak ezartzen direnean.</p>	EZ DA EGOKIA	<p>► Egokitzen da etxeko lanei eta zainketei, kontziliazioari eta profesionalentzako prestakuntzari buruzko erreferentziak mantentzea, ez delako arrazoitzen zergatik ezabatu beharko lirakeen.</p>
<p>► 46.3 artikuluan aipatzen da EAEko administrazio publikoek gizonen eta emakumeen landa-ingurunean aurkitzen dituzten oztopo gehigarriak kenduko dituztela, adinarekin, hezkuntza- eta prestakuntza-mailarekin, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu soziokomunitarioak lortzearekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek lotuta daudenak. Hala ere, landa-ingurunean oztopo gehigarriak aurkitzen badituzte ere, (oro har) baliabideak lortzearekin eta estereotipo eta baloreekin daude lotuta.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da artikulua aldatzea, eta adierazi da EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, behar diren baldintzak sustatuko dituztela landa-ingurunean emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bermatzeko, eta emakume horiek dituzten oztopo gehigarriak kenduko dituztela; besteak beste, baliabideak lortzearekin eta esleitutako estereotipo eta roleren lotutako oztopoak.</p>
III. TITULUA VI. KAPITULUA 48.1-4 art.- ENPLEGUAREN EGITURAK EGOKITZEA ETA KULTURA ETA PRAKTIKA ENPRESARIALA ERALDATZEA		
<p>► Gizonen etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzunkidetasuna txertatzea 48.1 eta 48.2 artikuluetan, administrazio publikoek, euren eskumenen eremuan, lan-baldintzak hobetzeko zer neurri mota txertatu behar duten aipatzen denean.</p>	EGOKIA DA	<p>► Egokitzen da proposatu den moduan aldatzea artikulua. Horrela, ikusgaitasun handiagoa emango zaio gizonen etxeko lanekin eta zainketeekin duten erantzunkidetasunari, gai hori dagoeneko aurreikusita baitago artikulua azken tartekian.</p>

▶ Gehitzea seme-alaben jaiotza-, adopzio- edo harrera-kasuetan, gurasoek ez dituztela aldi berean hartu behar baimen berdin eta besterenezinak.	EZ DA EGOKIA	▶ Estatuaren oinarriko legeriaren arabera, gurasoek aldi berean har ditzakete baimen horiek, lehen asteetan.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 50.2, 50.3, 50.5 eta 50.7 art.- XEDAPEN OROKORRAK		
▶ 50.2 artikuluan gehitzea emakumeen aurkako indarkeria matxista botere-harreman desberdinen adierazpena dela, eta bere funtzio soziala egiturazko genero-desberdintasunak betikotzea dela.	EGOKIA DA	▶ Egokituz jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.
▶ 50.3 artikuluan, emakumeen aurkako indarkeria matxista motak aipatzen direnean, emakumeak ez ezik, neskatoak ere hartzea aintzat. Gainera, 50.7.a) artikuluan, gehitu behar da giza eskubideak errespetatzearen, babestearen eta sustatzearen printzipioa, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erakundeek eman behar duten erantzuna gidatu behar duena, ikuspegi feministan oinarritu behar dela.	EGOKIA DA	▶ Egokituz jo da proposatu den moduan aldatzea bi artikulua.
▶ «Beharrezko izanez gero» adierazpena kentzea 50.5 artikuluan adierazten denean erregelamenduz ezarriko dela nola egiaztatu biktima-izaera, eskubide eta zerbitzu batzuk eskuratu ahal izateko.	EZ DA EGOKIA	▶ Uste da biktima-izaeraren «akreditazio formalik» behar gabe eskuratu daitezkeen baliabideak egoteak indarkeria matxistaren biktima posibleek baliabideak eskuratzeko errazten duela.
▶ Hobeto azaltzea zertan dantzan 50.7.d) artikuluan aipatzen den printzipioa, neskatoen, mutikoen eta nerabeen interes gorenari buruzkoa. Horretarako, proposatzen da indarkeria moten barruan kokatzea, erasotzaileengandik babesteko beharra azaltzea, haien beharretara egokitutako zerbitzuak errazago eskuratzeko, hezkuntza-eremuan neurriak ezartzea, etab.	EGOKIA DA	▶ Nahiz eta espezifikoki aipatzen diren neskatoekin, mutikoen eta nerabeekin lotutako gaiak (esaterako, 31.4, 50.4 eta 57.2 artikuluetan), komeni da 50.7.d) artikulua aldatzea eta zera adieraztea: erakundeen erantzuna neskatoen, mutikoen eta nerabeen interes gorena kontuan hartuta emango da, hala, kalte egiten dieten indarkeria mota espezifikokoak ikertu eta horiei aurre egingo zaie, eta haien behar espezifikokoak antzemateko, babesteko eta asetzeko sistemak egokituko dira.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 51.1 eta 51.4 art.- DATUEN IKERKETA, ERREGISTROA ETA HEDAPENA		
▶ Neskatoek jasaten duten indarkeria matxistari buruzko erreferentziaren bat txertatzea, bai daukan garrantziagatik baita ikusezintasunagatik ere.	EZ DA EGOKIA	▶ Neskatoen aurkako indarkeria matxistari buruzko aipamen berezi bat egingo da 51.1 artikuluan.
▶ Gehiago zehaztea 51.4 artikulua, kasuen informazioa partekatze sistema elektronikoa bat ezartzeari dagokionez (sistema egiteko erantzukizuna, administrazioentzako izaera loteslea, berdintasunerako organoak sistemara sartzea, beste sistema elektronikoa eta polizia batzuekin koordinatzea, etab.).	EZ DA EGOKIA	▶ Oro har aipatzen da emakumeen aurkako indarkeria matxisten kasuen informazioa partekatze sistema elektronikoa bat ezarriko dela, Genero Indarkeriaren Aurkako Estatu Ituneko Neurrien dokumentu bateginean bildutakoarekin bat etorritik. Bertan, «sistema elektronikoa» terminoa erabiltzen da, eta ez du gehiago zehazten, ez sistemaren edukiari dagokionez ezta irismenari dagokionez ere.
III. TITULUA VII. KAPITULUA. 52.2 eta 52.4 art.- SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA		

<p>▶ Aipamen espezifiko bat egitea, mugimendu feministaren eta berdintasunaren aldeko emakume taldeen rola aitortzeko eta indartzeko, sensibilizatorako eta prebentziorako funtsezko elementu gisa, emakumeak ahalduntzeko egiten duten lanaren esparruan, bai eta udal mailan ekipamenduak sustatzeko ere (adibidez, emakumeen etxeak).</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Aldatu egin da 24.3 artikulua, eta, hala, honako hau adierazten da: aipatu elkarteekin (adibidez, emakumeen etxeekin) lankidetzan aritzeko bide publiko-pribatuak bultzatuko dira, emakumeak ahalduntzen laguntzeko eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak hautemateko eta biktimei lagun egiteko guneak errazteko.</p>
<p>▶ Kontzientziazio feministaren sustapena txertatzea 52.2 artikuluan, emakumei zuzendutako programen eta jarduketan zati gisa.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.</p>
<p>▶ Administrazio publikoek programak sustatzen dituzte, emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen dutenei jokabide ez-bortitzak izaten erakusteko. Bada, zehaztu behar da programa horiek indarkeria hori erabiltzeari utzi nahi dioten pertsonen zuzenduta dagoela.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Ez da egokitzen jo artikulua aldatzea, batzuetan, programa horietan parte hartzearen ondorioz, emakumeen aurkako indarkeria matxista erabiltzen ari direla antzeman, eta kontzientzia hartzen baita.</p>
<p>III. TITULUA VII. KAPITULUA 53. art. - PRESTAKUNTZA</p>		
<p>▶ Ezinbesteko baldintza bezala txertatzea indarkeria matxistaren biktimei zerbitzu espezifikoak kudeatzeaz eta emateaz arduratzen diren profesionalen berdintasunaren eta indarkeria matxistaren arloko prestakuntza izatea. Halaber, haurrekin eta gazteekin lan egiten duten profesionalen ere neskatoek jasaten duten indarkeria espezifikoaren izatea (sexu-indarkeria familiaren eremuan edo hurbileko ingurunean).</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da lerrokada bat gehitzea 53. artikuluan. Bertan adieraziko da EAEko administrazio publikoek baldintza bezala eskatuko dutela berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztearen arloko prestakuntza egiaztatzea, lanpostuak lortzeko eta zerbitzu espezifikoak emateko. Gainera, beste lerrokada bat gehitu da artikuluan horretan, eta aipatzen da EAEko administrazio publikoek bermatu behar dutela haurren eta gazteen eremuan lan egiten duten pertsonen prestakuntza egokia dutela, proposamenaren ezarritakoaren arabera.</p>
<p>▶ Zehaztea 53. artikuluan aipatzen den prestakuntza, giza eskubideen ikuspegitik ez ezik, ikuspegi feminista eta intersektionaletik gauzatu dela.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.</p>
<p>III. TITULUA VII. KAPITULUA 54.4, 54.5 eta 54.6 art. - XEDAPEN OROKORRAK</p>		
<p>▶ 54.4 artikuluan zehaztea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan eskumena duten EAEko administrazio publikoen plan estrategikoen lehentasunezko helburua izango dela behar bezala aurre egitea emakumeen aurkako indarkeria matxistari, kontuan hartuta bere dimentsio estrukturala.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.</p>
<p>▶ Gehieneko epe bat jartzea 54.5 artikuluan, erakunde horiek aipatu protokoloak aplikatu dituzten eta berrespena ematean atzera ez daitezten.</p>	<p>EZ DA EGOKIA</p>	<p>▶ Nahiz eta adierazi den EAEko administrazio publikoek protokoloak betetzen dituztela bermatu behar dutela, proposamenaren zehaztasun-mailak lege-lerruneko araua gainditzen du.</p>

▶ 54.6 artikuluan txertatzea EAEko administrazio publikoek bermatu beharko dutela profesionalak denbora nahikoa daukatela arreta emateko, bai eta prestakuntza-baliabideak, baliabide instrumentalak, aholkularitza espezializatua eta espazio egokiak ere.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua. Horrela, adieraziko da bermatuko dela profesionalak «indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko denbora nahikoa dutela, bai eta laguntza- eta prestakuntza-baliabideak eta espazio egokiak ere».
▶ 54.6 lerrokada ezabatzea, uste delako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko, nahitaezkoa dela arreta emateko denbora nahikoa eta espazio fisiko egokiak izatea.	EZ DA EGOKIA	▶ Egokitzen jo da artikulua ez aldatzea, baldintza horiek (denbora nahikoa eta espazio egokiak) kasu guztietan berma daitezkeen txertatu delako aipatu lerrokada.
▶ Kontuan izatea, 54.6 artikuluan, arriskuaren balorazioa desberdina dela baloratzen den eremuaren arabera. Polizia-eremutik baloratzen direnez biktimak bere segurtasunari eta osotasun fisikoari dagokienez dituen arriskuak, proposatzen da poliziaren balorazioa beste arrisku batzuk baloratzeko irizpideetatik bereizi dela, lege-aurreproiektuaren zirriborroaren arabera, inplikaturako erakundeen artean koordinatuta egin behar baitira.	EZ DA EGOKIA	▶ Artikuluan aipatzen bada ere arrisku-egoera baloratzeko erabiltzen diren irizpideak inplikaturako erakundeen artean koordinatuta egin behar direla, gehitu da lan hori poliziaren eremuan arriskua baloratzeko dauden balorazio-sistemei kalterik egin gabe egingo dela. Hala ere, uste da arriskua baloratzeko sistemak koordinatuta egon behar direla.
▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak artatzean, txertatzea zer-nolako garrantzia daukaten taldeko prozesuek emakumeak suspertzeko, ahalduzko eta indartzeko bide gisa, bai eta prozesu horiek bai talde feministekin bai berdintasunaren aldeko emakumeen elkarteekin (adibidez, emakumeen etxeekin) duten lotura komunitarioak ere.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da 54. artikulua amaieran lerrokada bat gehitzea, proposatzen den moduan bil dadin ekarpena.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 55. art.- XEDAPEN OROKORRAK		
▶ Ondoren adierazten den bezala idaztea 55. artikulua, indarrean den araudiarekin bat etor dadin (7/2018 Errege Lege Dekretua, uztailaren 27koa, Estatuko Osasun Sistemarako irispide unibertsalari buruzkoa eta 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena): «Euskadiko Osasun Sistemak emakumeen aurkako edozein indarkeria motaren biktimei bermatuko die osasuna babesteko eta osasun-arreta izateko duten eskubidea, arauz aitortua; barnean sartzen da biktimen egoerari jarraipena egitea, guztiz oneratzeko diren arte, jasandako indarkeriatik datozen ondorioei edo sintomatologiari dagokienez».	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua, baina mantendu egin da laguntza emango zaiela biktima guztiei, haien administrazio-egoera edozein dela ere, indarkeria horren biktima guztiei osasun-arreta ematen zaiela bermatzeko, Nazio Batuek ezarritako kalitate-estandarrek eta Istanbulgo Hitzarmenak xedatutakoa betez. Gainera, etxeko indarkeria eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumei arreta hobe emateko Erakundearteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Erakundearteko Lantalde Teknikoaren ustez, aipamen hori oso garrantzitsua da.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 56. art.- INFORMAZIO- ETA ARRETA-ZERBITZU OROKORRAK		
▶ Artikuluaren a) apartatuan txertatzea eguneko 24 orduetan erabilgarri dauden larrialdi-zerbitzuek babes poliziala emango dutela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.
▶ Gehitzea lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak, emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuetan, «lehentasunez» emango duela informazio-, balorazio- eta diagnostiko-zerbitzua, eta, behar izanez gero, bigarren mailako beste gizarte-zerbitzu batzuetara bideratuko	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.

duela.		
III. TITULUA VII. KAPITULUA 57.1, 57.3 eta 57.4 art.- ARRETA ESPEZIALIZATUKO ZERBITZUAK		
▶ 57. artikulua zabaltzea, argi eta garbi adierazita arreta espezializatua gizarte-zerbitzuen sistemari dagokiola, eta aipatzea beharrezkoa dela administrazioaren maila guztietan koordinazio-espazio egonkorak sortzea gizarte-zerbitzuen arloan eta berdintasun-organoen artean, gizarte-zerbitzuen arreta espezializatuko ereduak sakontzeko, ikuspegi feministatik eta genero-ikuspegitik.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da artikulua amaieran lerrokada bat gehitzea zera adierazteko: EAEko administrazio publikoek koordinazio-espazioak sustatuko dituzte gizarte-zerbitzuen eremuan eta berdintasunaren eremuan eskumena duten organoen artean, arreta-ereduak errazago zehazteko, proposamenean bildutako ikuspegitik.
▶ 57.1 artikuluan txertatzea arreta psikologikoko zerbitzuek laguntza psikosoziala eta terapia psikologikoa eskainiko dituztela, erantzuna emateko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimen erreparazio psikologikoko prozesu luzeenei eta urgentziatzko egoerei.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua b) apartatua, laguntza psikosozialeko zerbitzuak aipatzen direnean, alegia.
▶ 57.1 artikuluan txertatzea larrialdietako eta berehalako harrerako zerbitzuek, hasierako arreta soziojuridikoa eta psikosoziala emateaz gain, biktimen beharren hasierako balorazioa egingo dutela. Horrez gain, adieraztea bizileku-baliabideek, laguntza psikosozialeko zerbitzuak izan ordez, arreta sozioedukatibo eta psikosozialeko zerbitzua eta laguntza sozialeko zerbitzua izango dituztela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua c) eta d) apartatuak.
▶ Artikulu osoan kontuan izatea haurrak babesteko gizarte-zerbitzuek berdintasun-ikuspegia txertatu behar dutela euren lanean, kontuan hartuta indarkeria matxista gertatzen den esparrua eta haurren babesgabatasuna eta neskatoketuzuzenean jasaten duten indarkeria matxista.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da 53. artikuluan («Prestakuntza») lerrokada bat gehitzea, zera aipatzen duena: EAEko administrazio publikoek bermatu behar dute haurren eta gazteen eremuan lan egiten duten pertsonen prestakuntza egokia dutela, proposamenean ezarritakoaren arabera.
▶ 57.3 artikuluan zehaztea biktimen ingurune intimoko adiskideei eta senideei segurtasuna eta laguntza emateko neurriak laguntza soziala eta psikologikoa bermatzen duen esku-hartze osoa ahalbidetu behar dutela (proposatzen da «bereziki psikologikoa» ezabatzea).	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua.
▶ 57. artikuluko 4. lerrokada ezabatzea. Izan ere, egia da etxe-animalek pertsona batzuen oreka psikologikorako garrantzitsuak direla, baina ez da egokia lege-lerruneko arau batean horrelako zerbaitekin aipatzea.	EGOKIA DA	▶ Testua aldatu da, proposatu den moduan.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 58.3 eta 58.4 art.- PRESTAZIO EKONOMIKOAK		

▶ 58.3 artikuluan, zehaztea zer gizarte-zerbitzuz izan behar duten urgentziako prestazio ekonomikoetarako aurrekontu-partida (lehen mailako arreta, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, etab.). Horrez gain, ohartarazten da urgentziako prestazio horiek ez daudela Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan.	PARTZIALK I EGOKIA DA	▶ Gizarte-zerbitzuen eta araudi-garapenen eremuan dauden erakundearteko koordinazio-espazioen bitartez erabaki behar da nori dagokion prestazioa ematea. Bestalde, egokitzen jo da lege-aurreproiektuan aipatzea prestazio hori Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatu behar dela.
▶ 58.4 artikuluan zabaltzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek eskura ditzaketen laguntza guztiak (bai orokorrak bai espezifikoak) lortzeko duten lehentasuna.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da artikulua idazketa berrikustea eta aipatzea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek lehentasuna daukatela laguntza orokorrak lortzeko, eta laguntza espezifikoak bermatuta ditzatela.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 60. eta 60.1 art.- ARRETA POLIZIALA ETA JUSTIZIARAKO SARBIDEA		
▶ 60.1 artikuluan txertatzea polizia-etxeetan arreta ematen duten langile guztiak emakumeen aurkako indarkeriaren eta berdintasunaren arloko prestakuntza izan behar dutela.	EZ DA EGOKIA	▶ 53. artikuluan dagoeneko aipatzen da profesionalek –poliziaren eremuko profesionalak barne– prestakuntza hori izan behar dutela.
▶ 60.1.b) artikuluan txertatzea poliziaren eremuak modu aktiboan parte hartu behar duela tokiko koordinazio-espazioetan.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da artikulua aldatzea eta adieraztea bermatu egingo dela polizia-kidegoen eta gainerako arreta-zerbitzuen arteko koordinazioa eta elkarlana, biktimei arreta egokia emateko informazioa truka dezaten.
▶ Polizia-etxeetako espazio fisikoak aipatzen direnean, gehitzea biktima guztiak irisgarritasun osoa izango dutela.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da lerrokada bat gehitzea, biktima guztiak irisgarritasun osoa izango dutela adierazteko: egoera bakoitzari dagozkion behar espezifikoetara egokituko dira espazioak, eta martxan jarriko dira salaketak jartzen laguntzeko baliabideak (...).
▶ Zera bermatzea 60.1.e) artikuluan: emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuetan arriskua ikertzeko, baloratzeko eta horren aurrean jarduteko poliziaren protokoloak aldi berean eguneratzen direnean, berdintasunaren eta intersektionalitatearen ikuspegia txertatzea.	EGOKIA DA	▶ Egokitzen jo da proposatu den moduan aldatzea artikulua, generoaren eta intersektionalitatearen ikuspegia txertatuta.
▶ Salaketatik era esplizituan bereiztea polizien arreta, eta arreta-zerbitzu espezializatuak bideratzearekin lotzea, arretaren esku-hartze osoa ahalbidetzeko.	EZ DA EGOKIA	▶ 60. artikulua polizien arretari buruzkoa den arren, ez dago salaketan zentratuta. Gainera, lege-aurreproiektuak dagoeneko 50. artikuluan ezartzen du salaketa jartzeak ezin duela baldintzatu zerbitzu-prestazioa, eta emakumeen ahalduak eta biktimei eta biziraueen eskubideak hartzen diren neurri guztien erdigunean egon behar direla.
III. TITULUA VII. KAPITULUA 61. art.- ERREPARAZIO-ESKUBIDEA		
▶ Argitzea ea Zigor Kodean (109-122 artikulua) araututa dagoen kalte-ordainaz bestelako bat sortuko den –kalteen balorazioa auzibidez ezartzen dena– edo biktimak zenbateko hori kobratzen duela bermatu nahi den eta administrazioaren sorospen-erantzukizuna sortuko den	EGOKIA DA	▶ Helburua da emakumeen aurkako indarkeria matxistako delitu baten ondoriozko ebazpen judizial bidez ezarritako kalte-ordaina bermatzea. Proposatzen den zehaztasun-maila (kalte-ordaina emateko administrazio

<p>kalteak ordaindu ezin diren kasuetarako. Beste kalte-ordain bat bada, proposatzen da zehaztea nork duen eskumena, nola erabakiko den zenbatekoa, etab. Horrez gain, proposatzen da legean gehiago zehaztea «ez errepikatzeko bermea» eta «berreskuratze osoa» (ekonomikoa, psikologikoa edo beste mota batekoa bada) kontzeptuak, erreparazio-eskubidea eraginkorra izatea lortzeko neurriak arautu eta administrazio eskuduna ezarri ahal izateko.</p>		<p>eskuduna eta baldintzak) Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzarekin koordinatuta lantzen ari da, eta aurreikusten da legea onartu eta indarrean jartzen denean ezartzea, dagokion erregelamendu-garapenaren bitartez.</p> <p>▶ Halaber, aurreikusten da lege-aurreproiektuan araututako zerbitzuen bitartez egitea «ez errepikatzeko bermea» eta «berreskuratze osoa». Edonola ere, irismena dagokion erregelamendu-garapenaren bitartez zehaztuko da, baita ere.</p>
<p>▶ Adieraztea zer-nolako garrantzia duen indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeak emakumeen elkarte-ehunarekin eta ahalduntze-espazioekin lotzea (adibidez, emakumeen etxeekin), berreskuratzeari begira.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da 54. artikulua aldatzea eta adieraztea EAEko administrazio publikoek talde-prozesuak bultzatuko dituztela emakumeen errehabilitazio, ahalduntze eta sendotzerako. Gainera, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren arloan, lan komunitarioa sustatuko dute berdintasunaren aldeko emakume elkarteekin, talde feministekin, ahalduntze-eskolekin eta emakumeen etxeekin batera.</p>
<p>III. TITULUA VII. KAPITULUA 62.1 eta 62.3 art.- ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA</p>		
<p>▶ 62.3 artikuluan argi eta garbi zehaztea Emakunde-Emakumearen EAEko erakundeari dagokiola erakundearteko koordinazioa zuzentzea.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Artikulua aldatu da, adierazita autonomia-erkidegoko administrazioari dagokiola –Emakunde-Emakumearen EAEko erakundearen bitartez– erakundearteko elkarlan-akordioaren eguneraketa sustatzea (...).</p>
<p>▶ 62.3 artikuluan txertatzea inplikaturik dauden arreta-sistema guztiek modu proaktiboan parte hartu behar dutela foru- eta toki-administrazioek garatzen dituzten elkarlan-akordioetan eta jarduketan-protokoloetan.</p>	<p>EGOKIA DA</p>	<p>▶ Egokitzen da 62.3 artikulua aldatzea eta adieraztea inplikaturik dauden arreta-sistema guztiek modu proaktiboan parte hartu behar dutela aipatzen diren protokolo eta akordio guztietan.</p>

EKARPENAK DITUZTEN TITULUAK ETA KAPITULUAK

ZIOEN AZALPENA

ATARIKO TITULUA

I. TITULUA	ESKUMENAK, FUNTZIOAK, ANTOLAMENDUA ETA FINANTZAKETA	I. KAPITULUA	ESKUMENAK ETA FUNTZIOAK
		II. KAPITULUA	ANTOLAMENDU INSTITUZIONALA ETA KOORDINAZIOA EAEko adminISTRAZIO PUBLIKOEN ARTEAN
		III. KAPITULUA	FINANTZAKETA
II. TITULUA	EAEko ADMINISTRAZIO ETA BOTERE PUBLIKOEN JARDUNEAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO NEURRIAK	I. KAPITULUA	PLANGINTZA
		II. KAPITULUA	ESTATISTIKAK ETA AZTERLANAK
		III. KAPITULUA	LANGILEEN TREBAKUNTZA
		IV. KAPITULUA	ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
III. TITULUA	ZENBAIT ESKU-HARTZE ARLOTAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK	I. KAPITULUA	PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA
		II. KAPITULUA	KULTURA ETA KOMUNIKABIDEAK
		III. KAPITULUA	HEZKUNTZA
		IV. KAPITULUA	LANA
		V. KAPITULUA	OINARRIZKO BESTE ESKUBIDE SOZIAL BATZUK
		VI. KAPITULUA	BIZITZA PERTSONALAREN, FAMILIAREN ETA LANAREN KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA
		VII. KAPITULUA	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA
		VIII. KAPITULUA	SEKTORE PRIVATUAN BERDINTASUNAREN ETA SEXUAN OINARRITUTA DISKRIMINAZIORIK EZ

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEA
ALDATZEKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA**



Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



Organismo Autónomo

GOBIERNO VASCO